


# EVSKAL IZTEGI LABURRA

Etxebarria'tar Juan Anjel



AZALEKO MARGOKIAREN

EGILLEA: ISIDORO URBITA

JAUBBA: ANGEL SAGRARIO ETXEARRIA

ARGAZKIA: ALFREDO GARCIA FRANCIS



**EUSKAL IZTEGI LABURRA**  
**(G-I)**

Etxebarria'tar Juan Anjel

---

**S. Anton'go Katekesia**  
**Euskal-argitalpenak**

## AGERTUTAKO IDAZTIAK:

1. Phedro'ren Alegiak I
2. Martial'en Ziri-Bertsoak I
3. Phedro'ren Alegiak II
4. Fatima'ko Ama Birjiña ta Umeak
5. Euskal Iztegi Laburra (A)
6. Esopo'ren Alegiak I
7. Agustin Deunaren Eskutitzak I
8. Gurutz-Bidea
9. Phedro'ren Alegiak III
10. Batikano II Batzar-Agiriak (Eleiza ta kristau ez diran beste erlijioak)
11. Perrault'en Ipuñak (2-garren argitalpena irarteko)
12. Batikano II Batzar - Agiriak (Gizarte artuemo-netako bideak)
13. Apuntes de Vasuence (Segundo Curso)
14. Lope de Vega - Bakar-Antuak
15. Liturji - Goratzarreak
16. Jaungoikoaren Agerpena (Batikano-agiriak)
17. Maitale Galdua (olerkiak)
18. Lati-izkuntzaren Joskera (Orixe)
19. Euskal Iztegi Laburra (B-D)
20. Kristau Aziera (Batikano-agiriak)
21. Euskal Iztegi Laburra (E-F)
22. Basoko Loreak (olerkiak)
23. Lo ta Amets (olerkiak)
24. Apuntes de Vasuence (Primer Curso)
25. Katalunya'ko Olerkariak
26. Bidaztien Aterpea
27. Apuntes de Vasuence (Tercer Curso)
28. Euskal Iztegi Laburra (G - I)

Algorta'ko

Intxausti'tar Begoña'ri.

Gorputz ederra,  
gogo sakona.  
Zaiz euskotarra  
ta euskalduna.

O A R R A

G ta I izkiak dirala-ta, *gudari* ta *ikurrin* sartu ditut iztegian. Arrituxe lotu dira zenbaitzuk.

Zergaitik?

Iñor guduan ez dabillenean, kenduko dogu guk geuretik gudari itza. Mundutarren ikurriña bakarra dadinean, geuk onetara esango: Goazen euskaldun danak ikurriñan atzean!

Urrengo idaztian J-K izkiak azalduko doguz.

Irar-uts zuzentzaille S. Anton'go abade euskaltzaleak izan dira. Ta Gallastegi'tar Kauldi, gure ordu latzen xuspergarri.

Gora, euzko, adil

Egilleak.

Urrengo idaztian J-K izkiak azalduko doguz.

G

Gabaldi - Gauzez emoten dan aldia.

Gabe. - Ain barik: Diru gabe, atsekabe.

Gabetasun. - Zer edo zer gabe egon.

Gabetu. - Zerbait kendu: Ondasun guztiez gabetu nabe abertzale nazalako.

Gabon. - Jesukristoren jaioteguna: Gaur Gabon, biar or konpon. / Gauerako agurra: Gabon dizuela Jainkoak.

Gabontz. - Egazti arrapakaria, gauzezkoa.

Gai. - Zer: Orra nire itzaldiren gaia; /Zerbaiterako gertu edo aukeratua: Abadegai. / Duin, egokia: Ni ez naz orretarako gai.

Gain. - Mendi edo beste toki baten goikaldea. / Kontura: Itxi egiteko ori nire gain.

Gainbera. - Aldatz-bera. / Aultze edo beeraldia: Euskal-lerria gainbera, bein galdu euskera.

Caitasun. - Gai izatea.

Gaitu. - Zerbaiterako gai egin.

Gaitz. - On-eza. / Andi andia: Lan gaitza darabilzu.

Gaitzetsi. - Gaitzat artu, emon.

Gaitzurre. - Arriskua.

Gaizki. - Txarto.

Gaizkin. - Gaitza egiten dauana.

Gaizo. - Zorigabekoa, atzera samarra edo.

Gaiztagin. - Txarra ta okerra danaren egillea.

Gaiztakeri. - Zuzenaren aurkako egitea.

Gaizto. - Okerra, asmo-txarrekoa. / Gaiztoz: Asmo txarrez, txarrean.


Galant. - Itxura ederrekoa: Maritxu nora zoaz, eder galant ori?

Galantu. Itxura ederra artu: Zeu be ez zara asko galantu aspaldi ontan. (Ondarru).

Galazarazi. - Zer bait egiten itxi ez.

Galbide. - Galtzera daroana. / Inori emondako obenbidea.

Galburu. - Gariaren burua.



GALBURU

Galdatz. - Galdetzeko ezau-garria.



GALDATZ

Galde. - Itauna. / Billakuntza: Zure galdez etorriak gaituk.

Galdera. - Itauna.

Galdetu. - Itandu.

Caldor. - Gaiña: Etxe bati tellatua ipiñi garaian galdor-jaija ospa oi dabe etxegilleak.

Galdu. - Zan edo dana suntsitu: Gosaldu, bazkaldu, askaldu, apaldu ta osasuna galdu.

Gale. - Irritsa: Atsegin-gale urreratu nintzakion.

Galeper. - Garitan egon oi dan txoria.

Galera. - Galtzea: Erdera, euskeraren galera ta... dana lurpera.

Galerazi. - Galdu eragin / Debekatu.

Galgarri. - Galtzera daroana: Dirua galgarri, euskal nobela baten izena.

Galpar. - Ule-urtenak.

Galtzairu. - Burni gogorra.

Galtzori. - Arriskua.

Galtzu. - Gari-artoen landaraen ondarrak.

Gallendu. - Agiri jarri; gainetik urten.

Gallar. - Goikaldea: Mendi-gallurrean ikurriña ipiñi eben atzo.

Gandu. - Laino / Begi-lausoa.

Gangar. - Zentzun gitxikoa.

Ganora. - Era egokia; Gauza orreik ganoraz egin bear dira.

Gantz. - Koipe / Igurtziki.

Gantzutu. - Okenduz igortzi, bildu.

Gañerako. - Enparau, beste: Osaba ta gainerako senideak.

Gañeratu. - Gañean ipiñi / Geigarritzat ipiñi; Itzaldia-oren ondoren auxe gaineratu eban.

Gañez. - Bear danaz gainera: Ez dot dirurik gañez.

Gañez Egin. - Goi-ertzen gainetik urten: Ibaiak gañez egin dau oingo euriteagaz.

Gar. - Suari darion errekoa.

Gara. - Alde urtenena / Aziera: Garako gizona da (gizon aundi eginda dago).

Garagardo. - Garagarretik egiñiko ardaoa (Sabin Arana'k asmatua).

Garagarri. - Urteko zazpigarren illa.

Garai. - Goi-be andikoa: Mendi garai atan jarri zan zelatan / Sasoi; Garai atan ez zan erdera jaio oraindik.

Garaille. - Nagusi edo gainetik geratzen dana: Euskeraren aldeze, izan zaitezte garaille.

Garaipen. - Garai izatea, geratzea.

Garaitu. - Garaille gelditu / Menpetu, azpiratu.

Garau. - Igali-alea.

Garaun. - Zaldarra / Buru-muiñak.

Garbai. - Damua.

Garbi. - Loi-bakoa.

Garbiketa. - Garbi ipintea / Garbitzen ibilli.

Garbitasun. - Garbi izatea / Zeaztasun: Egin daiguzan garbitasunak gure arazo orretan.


Garbitu. - Garbi ipiñi / Il, suntsiarazi: Etsai asko garbitu ebazan burrukaldi baten.

Garbizale. - Garbitasuna maite dauana: Euskera garbizaleak eta mordoillozaleak orra gure idazleak.

Garden. - Garbi-garbi, leiar bailitzangoa: Ur gardenak. Begi gardenak.

Garesti. - Asko balio dauana.


- Gari - Landara mueta bat.  
 Caritza - Gari asko dagoan lekua.  
 Garnu. - Txisa.  
 Caro. - Intza / Bedar bat.  
 Garun. - Buruko muiña.  
 Garrantzi. - Lleba.  
 Garratz. - Mingotsa / Latza.  
 Garrazi. - Deadar bizia.  
 Garriko. - Garrian eroaten dan lotura.



GARRIKO

- Garkor. - Garrak errez artzen dauzana.  
 Gartsu. - Gar andiduna / Bularlartsua: Burrukalari gartsua zan/Bizi-bizia: Itzaldi gartsua egin euskun.  
 Gatzandel. - Gatza gordetze-ko ontzia.  
 Gau. - Eguzkia sartuz gero urten arteko aldia.  
 Gau Berandu. - Gabeko azkenengo orduak.

- Gaur. - Oingo eguna, egu-nean.  
 Gaurdanik. - Gaurtik aurrera.  
 Gaurgero. - Gaur ezkeru.  
 Gautu. - Gau egin.  
 Gauz. - Gauza.  
 Cauza. - Izakia.  
 Gazi. - Gatzduna: Itsasoko ura gazia da.  
 Gazigozo. - Sagar mueta bat: Gazigozoak euskal idazti baten izena.  
 Cazikara. - Gazi samarra.  
 Gazta. - Gaztae.  
 Gaztae. - Esne mamituaz eginiko opilla.  
 Gaztanbera. - Gatzatua.  
 Gaztaro. - Gazte dan aroa.  
 Gazte. - Gizondu arteko mutila / Adiu laburreko gizona.  
 Gaztedi. - Gazte-aldra.  
 Gaztelu. - Jauregi gotorra.




GAZTELU

- Gaztetan. - Gazte-aldian: Neu be gaztetan, egoak oiñetan.  
 Gaztigatu. - Iragarkia egin: Biar datorrela gaztigatu dauste.  
 Geiago. - Geituaz; Emoidazu ur geiago.  
 Geiegi. - Larregi, neurritz gain.  
 Geiegikeri. - Neurritik gorakoa: Jan-edanetan ez egin geiegikeririk.  
 Geien. - Andiena; / Alik eta goren: Geien dala, amar emongo dautsudaz.  
 Geigarri. - Geitzeko erantsia.  
 Geitu. - Lengoari erantsi: Geitu egidazu ordaiña.  
 Gela. - Egon-lekua.  
 Geldi. - Igige.  
 Gelditu. - Geldi egon./Geratu.  
 Geldo. - Lelo samarra/Arritua.  
 Geltoki. - Gelditzeko tokia.  
 Genta. - Pake.  
 Geratu. - Nunbaiten egotez jarri: Geratu zaitez emen/Gaiñez egon, euki: Zati ederra geratzen yat oraindik.  
 Geriz. - Itzal.  
 Gernu. - Txisa.

- Gero. - Orain ezkeru: Gero etorriko naz / Kontuz, arren; Berandu ez etorri, gero! / Baiña: Ekarri batzuk; zeintzuk, gero? / Geroko-aldia: Geroa alperraren leloa.  
 Gero ta gero be. - Azkenean: Gero ta gero be dana salduko dogu (Bermeo).  
 Gertaera. - Prestaera / Jazokuna.  
 Gertatu. - Jazo.  
 Gertu. - Era egokiz dana: Goazen, gertu nago-ta.  
 Gertuko. - Urreko: Gertuko gauzak.  
 Gerkeru. - Grezitarren izkuntza.  
 Gesu. - Geroko aldia: Gezu baten (apur baten barruan) joango naz ni andik (Iezama).  
 Geza. - Gozo-bakoa.  
 Gezi. - Izkillu aga me-arin, mutur zorrotza.  
 Gezna. - Iragarkia.  
 Gezur. - Guzur.  
 Giar. - Txarri-okela, loditahun bakoa./Mamiña: Idazti onek ba-dau Teologiarra.

Gibel. - Errai andia / Atze-  
kaldea: Urrundik ikusten  
dut, ikusten, mendia / be-  
raren giblean ba-dut nik  
erria / Lakatza; Gizon gi-  
bela izaten omen zan.

Giltz. - Serrailua itxi-irikite-  
ko tresna.



G I L T Z

Ginga. - Eguzkia goren dan  
unea; Eguzki-gingan zer-  
tan zbiltz or?

Giro. - Eguraldia; Zelako gi-  
roa dogu gaur? / Sasoia:  
Ez dago giro onik eus-  
keraz bizitzeko.

Gizabide. - Gizarterako era  
ona.

Gizajo. - On utsa. / Erruka-  
rria.

Gizalan. - Morroi batek egu-  
nean egiñiko lana.

Gizalege. - Gizarekiko modu  
egoki-neurritsua.

Gizarte. - Gizonak eratutako  
batza.

Gizatalde. - Gizon asko ba-  
tera.

Gizen. - Lodiera andikoa; ollo  
gizena; ogipide orrek  
emongo dauetsu izena ta  
gizena.

Gizendu. - Gizen ipiñi.

Gizeraille. - Gizon-iltzaillea.

Gizon - Adimendun aberea.

Gogai. - Gogoak sortua / Go-  
goan sorturiko irudia.

Gogaikarri. - Gogait eragiten  
dauana.

Gogait. - Atsegiñik eza.

Gogait Egin. - Aspertu.

Gogaitu. - Aspertu.

Gogo. - Gaikirik bako izakia;  
Aingeruak gogo utsak di-  
ra, / Gogoaren almena;  
Asmo au sortu yatan go-  
goan. / Berezko lera; Ez  
dot gogorik orretarako. /  
Gogoan euki, gogoratu:  
Beti gogoan eukiko zai-  
tut. / Gogoan artu, adi-  
menean erabilli: Artu egi-  
zue gogoan nire esana.

Gogoanbear. - Susmoa.

Gogoangarri. - Gogoratzea  
merezi dauana; Egun go-  
goangarria axe.

Gogoeta. - Oldozpena: gogoe-  
tan ebillen bere kautan.

Gogoko. - Atsegingarria; Ez  
dozu gogoko erdera, igar-  
ten yatzu.

Gogora. - Norberan atsegiñez:  
Ez dot gogora egin.

Gogoratu. - Gogora ekarri;  
Gogoratu ondo au, erde-  
rari miau. / Burura etorri;  
Auxe gogoratu yat.

Gogor. - Ikutu-bera ez dana;  
Burnia gogorra da. / Inda-  
rrezkoa: Aize gogorra ebi-  
llen. / Latza; Berba gogo-  
rrak zuzendu eutsozan.

Gogorkeri. - Gogorrean jar-  
dutea.

Gogorki. - Era gogorrez: Go-  
gorki lotu zituan. / Biotz-  
gabe: Gogorki zigortu zi-  
tuan.

Gogortu. - Gogor egin jarri.

Gogotik. - Gogoz: Gogotik da-  
bil ikasten. / Ugari bai  
ugari: An indiak gogo-  
tik asten dira.

Gogotsu. - Gogo andiduna;  
Mutil gogotsua da. / Biz-  
kor-alaiia; Gogotsu dabil  
bearrean.

Gogozko. - Gogoari dagokio-  
na: Gogozko jaunartzea.

Goi. - Garai: Mendi goi are-  
tan dago gure baserria. /  
Sapai: Zeru goian eta etxe  
goian argiak eskegita.


Goibel. - Illuna; Zerua goibel  
egoan. / Ituna: Goibel za-  
kust gaur, zer dozu?

Goibeldu. - Goibel jarri;

Goiz. - Egunaren lenengo al-  
dia: Goiz gorri, arrats eu-  
ri. / Berandu barik: Goiz  
zabiltz bearrean. Goizago  
etorri urrengoan.

Goiztar. - Goizetik datorre-  
na, dabillena: Goiztar za-  
biltz, laguntxol

Golde. - Illoak irikiaz lurra  
lantzeko tresna.



G O L D E

Gomuta. - Oroia.

Gomutaki. - Gomutagarria;  
Lenengo jaunartzearen go-  
mutakiak atara bear do-  
guz.

Gomutapen. - Gomutara ekar-  
tea.

Gonburu. - Geiago eziñean:  
Gonbururaino betea egoan  
eleiza.

Gora. - Goi-aldera. / Garrantzia: Gora andiko gizona.

Gorabera. - Goi-beak: Bizitzako goraberatan. jo emen jo an. / Arren: Aren borondate txarra gora-bera guk egin genduan.

Goragarri. - Aipu andia me-rezi dauna: Egipen goragarria egin zuan.

Goraintzi. - Agurra: Goraintziako angoguztai.

Goratu. - Gora igon. / Omendu.

Corde. - Ezkutuan jarri: Corde ondo papel oneik. / Zaindu: Etsai gaiztoengandik gorde goguzuz.

Gorespen. - Anditzat jotzea: Gorespen itzala egin eutsen.

Goretsi. - Goragarritzat jo.

Gori. - Beroarren gorri-gorria.

Gorosti. - Zugatz mueta bat: Donostian Donosti, gorostian gorosti (lekuko erera ibilli).

Gorpu. - Gorputz illa.

Gorputz. - Giza-abereen atalak batean artuta.

Gorpuzki. - Ertikia. ; Santuen gorpuzkiak aintzaz gorde oi dira.

Goru. - Eunduteko tresna.

Cor. - Entzun ezin dauana: Ari ba dautsozu zorra, agertu zakioz gorra. / Entzun ezina: Amak esan dau arin etorteko; esaiozu gorra daukodala. / Entzungor (ez-entzunarena) egin, jaramonik ez egitea: Jauna niri deika ta ni berari entzungor.

Gordin. - Eldu bakoa: Sagarrok oindiño gordin dagoz. / Erre egosi barik: Okela gordin jaten eben antziña. / Sasoi onekoa: Gizon gordiña zagoz oindiño bere. / Latz-samarra: Itz gordiñak entzun bear izan ebazan egin ebana-gaitik.

Corri. - Aragi-margokoa: Odola gorria izaten da. / Latza: Egun gorriak etorri yakuzan. / Billosik: Naru gorrian itxi ninduen. / Utsa: Arkaitz gorriak betetzen dabe mendi osoa. Ume gorriak baiño ez ziran etorri erromerira. / Gorriak ikusi, eraman, igaro (gaizki, gogorki artua izan): Gorriak ikusi bearko dozuz zure obenagaitik.

Gorringo. - Egaztien arrautz-erdikoa: Zuringoa ta gorringoa jateko naikoa.

Gorritzka. - Gorri-antzekoa. Gorri samarra.

Corrotatu. - Gorrotoa izan.

Corroto. - Ezin-ikusia: Corroto bizia dautsoe batzuk gure euskerari.

Gosaldu. - Gosaria jan.

Gosari. - Goiz-goizeko jatordua.

Gose. - Jateko gogoa ta bearra: Gosea ta ase, batak bez mesedea.

Gose Izan. - Gosea nabaitu: Gose naz, emoidazu ogi zati hat, arren.

Gotillun. - Gogoaren illuntasuna: Gotillunagaitik ez ezetsi zure lagunik.

Gotzaina. - Gogoen ardura dauana. / Eleiz-barruti bateko apaiz nagusia.

Gotzon. - Aingerua.

Gozagarri. - Gozatu egiten dauana.

Gozamen. - Gauzen gozoa artzeko zentzumena.

Gozatu. - Gozo egin, jarri. / Atsegiña artu: Zeruko aintzaz betiko gozatu gaitez, jo ta ke lurrean. / Gauza bateri bere gogor-leuna egokitu: Gozatu ondo arrabita jo-aldia asi baiño len.

Gozo. - Aorako atsegiña: Lapikoko gozoa jan dogu. / Izakera bigunekoa: Andoni gizon gozoa da. / Gauza baten guna: Otoitzari gozo gutzia atarateko, ez izan barrutik otsoa.

Gozoki. - Gozagarriz egiñiko jatekoa.

Gozoro. - Gozo-gozo.

Griña. - Lera, irritsa: Griña txarrak menderatu bear doguz. / Inorgana edo zerbaitegana joera euki: Lagun gozo ori, zugana dot griña.

Guda. - Biren arteko pake-ustea; Guda zitala, apurto dozu euskaldun apala. / Burruka: Griña txarrai guda gogorra egin bear dautsegu.

Gudakin. - Gudan irabazita-koa.

Gudari. - Guduan dabillena.

Gudarozte. - Gudari-taldea.

Gudu. - Guda.

Gudukatu. - Guduan ibilli.

Gura. - Gogoa: Lo-gura naz. / Gu zanpatzeko guraz (guran) datoz etsai gaiztoak. / Naia: Ikusten ba' dozu inork ez dautsula ondo nai, zeuk be galduten dautsozu gura izana. (Uduliz).





G U D A R I

Gura Izan. - Gogoan erabilli;  
Ara joan gura dot.

Curari. - Borondatearen bul-  
tzada.

Curaso. - Aita amak.

Gure. - Guri dagokiguna.

Guren. - Deuna: Aste gure-  
na. / Azken-unea: Mendi-  
gurenean bizi da.

Guri. - Bigun-leuna: Oial gu-  
ria dozu ori. / Ondo azia:  
Mutikotxo guria dozu sein  
ori, andra.

Gurin. - Bei-esnearen ma-  
miña.

Gurutz. - Lerro bi, bata bes-  
tearen gainean okerkera  
edo zearka jarriak.



G U R U T Z

Curdi. - Burdi

Curpil. - Tresna biribilla, ar-  
datz baten gainean dabi-  
llena.



G U R P I L

Gurtu. - Adoratu.

Gutar. - Gurekin bat datorre-  
na: Ori bere gutarra da,  
(gure artekoa da).

Gutun. - Idazkia.

Gutxi. - Asko ez dana.

Gutxietsi. - Gutxitzat euki.

Guzi. - Guztia.

Guzti. - Dana, diranak: Erdia  
ez dot nai, guztia baiño. /  
Eta gainera: Gizon bat  
ondo jantzia, txapela ta  
guzti.

Guztira. - Guztia bat jota.

Gutziz. - Guztia bat jota. /  
Oso: Gutziz ona da.

Gutzizko. - Goitik berakoa:  
Lagun guztizkoa da ori...

Guzur. - Gogoaz, jakiñaz edo  
esanaz besterakoa: Cuzu-  
rra ta abarra dabil gaur  
gure muduan.

a. - Apur hategaitik: Ia jausi nintzan malladi aretan. / lkusi: Ia nor etorri dan, arin. / Zerbaitekiko jardun: Ia laster amaitzen dozun.

bai. - Ur-bera andia.

baika. - Andi-andika: Ura ibaika jausi zan.

baizaldi. - Hipopotamoa.

bar. - Ibai-ondoko legorra.

bilbide. - Ibilteko bidea. / Joan-etorri bateko bidea.

bildeun. - Eleiz-bira.

bilkera. - Ibilteko era: Ibilkeran kanguro bat emoten dau. / Ibiltea: Ibilkera aretan asko nekatu nintzan.

billi. - Batetik bestera joan: Aizea buruan ta ibilli munduan.

bitu. - Min bat baretu.

idaroki. - Burutara ekarri: Idazti arek idaroki eustan oingo eleberri au.

idar. - Leka barruan igali biribillak dakazan ortuaria.

idatzi. - Itzak-eta izkiz emon.


idazkari. - Idazkiak artzen, jartzen dauzana.

Idazkera. - Idazlegea.

Idazketari. - Idazkiak eta eskutitzak zabaltzen dauzana.

Idazki. - Zerbait idatzia.

Idazkikutxa. - Idazkiak bialtzeko kutxa.



IDA Z K I K U T X A

Idazkipe. - Idatz-ondoan gaineratzen dana.

Idazkola. - Idazle baten lan-tegia.

Idazkun. - Idazkiz egiñiko iragarkia.


Idazlari. - Idazketan diarduana.

Idazlaster. - Ikur-laburpenez mintzatu baizen arin idazteko era

Idazle. - Zerbait idatzi dauana.

Idazteun. - Jainkoak eraginda egiñiko idazti doneak:

Idazti. - Idatz-orriak alkarri josiak.



IDA Z TI

Idaztiño. - Idazti txikerra.

Ideki. - Zabaldu.

Ideko. - Antzekoa.

Idi. - Abere bat.

Idor. - Ezotasun bakoa.

Idoro. - Aurkitu.

Idun. - Burua enborragaz baten dauan soin-atala. / Jantzi baten lepo-ondokoa: Alkonðara iduna garbitu bear dozu.

Iduri. - Antza.

Ieki. - Ale: Idazti orretatik berreun ieki atara genduzan.

Igali. - Landaren sorkia: Madariak eta beste igali asko dagoz gure baratzan.

Igara. - Erreka barruango urun-errota.

Igaro. - Batetik bestera joan: Nundik igaro dira kanpotar orreik? / Aldi batetik bestera aldatu: Denpora andia igaro da ordutik ona. / Astia emon: Egun ederra igaro dogu.

Igarobide. - Batetik bestera joateko bidea.

Igarokor. - Laster doana: Bizitzaldi au igarokorra dozue, anaiok.

Igar. - Gunarik bakoa, barruko izardia agortu yakona: Zugatzak igar dagoz.

Igarri. - Asmatu: Ezetz igarri zertako dan Euskalerrri? / Nabaitu: Zeozer apartekoa igarri dot beragan. / Agertu, agirian jarri: Igar ten yatzu, erdal-kume amorratua zara zu.

Igarkizun. - Igartzeko zera.

Igarle. - Aurrez igarten dakiana.

Igartu. - Igar gertatu.

Igaz. - Joan dan urtean.

Igazi. - Igaro.




Igazlen. - Urte bi dirala.

Igel. - Sapu mueta bat, bizkar orlegizka, orban baltzduna.

Igeri Egin. - Esku-oiñai eraginka urez joan.

ges. - Alde egitea.  
 geskari. - Igesari emana.  
 geskor. - Errez iges dagiana.  
 gi. - Batetik besterakoa.  
 giera. - Igituz ibiltea, erabiltea.  
 gitu. - Igiz egon, ibilli.  
 go. - Goialdera joan.  
 gokunde. - Igo egitea: Jau-naren Igoakunde.  
 gorri. - Bialdu.  
 gortzi. - Bein ta barriz zer baten gainean erabili beste zer bat.  
 guin. - Ezin ikusia edo ezin-eroana.  
 guingarri. - Iguina dakarrena.  
 guriki. - Itxaron.  
 ka. - Lagunizketan ika ari-zea.  
 kara. - Bein ta barrizko gu-razko igia: Otz-ikara bat daukat geroztik. / oroitzen min arek emana! (Baxurko, Jesus).  
 karagarri. - Ikara sortzen dauana.  
 karati. - Ikara-bera.  
 karatu. - Ikaraz egon.  
 kasbide. - Ikasteko bide, era./ Jarraibide: Ikasbide ederra emon euskun mutil arek bere jardueraz.

Ikasketa. - Ikasteko jardunak.  
 Ikaskide. - Ikasten norberaz batera dabillena.  
 Ikasle. - Ikasten dabillena.  
 Ikastaro. - Ikasketak diraut en aldia.  
 Ikastetxe. - Irakatsi-ikasteko etxea.  
 Ikastola. - Ikasteko lekua: Ikastola bat eta polizi bi.  
 Ikastun. - Ikasten ta ikasten dabillena.  
 Ikatz. - Gai baltza, egurra ta beste gauzaki errebakoe-tatik artzen dana.  
 Ikerle. - Ikertzen dauna.  
 Ikertu. - Ikusi-aldi bat egin.  
 Ikotu. - Jauziz ari.  
 Ikur. - Adierazpen bat emoteko zerkia.  
 Ikurrin. - Oial laukia, zerbaiten ezaugarria.  
 Ikurton. - Sakramentua.  
 Ikusbera. - Ikusteko guratsua.  
 Ikusgura. - Ikusteko irrikaz dana.  
 Ikusi. - Begietaratu.  
 Ikuskizun. - Ikuskaia.  
 Kusle. - Ikusten dagoana.  
 Kusmen. - Ikusteko almena.  
 Kutu. - Eskuakaz aztatu.



IKURRIN

Ikuzi. - Garbitu

Il. - Bizia galdu, kendu; Eus-  
kera il, guretzat zulo bat  
biribil.

Il. - Illabete.

Il. - Illargia, iretargia.

Il-Agin. - Ilteko zoria.

Ilbeltz. - Urtarrilla.

Ilberri. - Illargi barria.

Ilburuko. - Il-agiñeango naia.

Ildo. - Goldeaz lurrean egi-  
ñiko zuloa.

Ilduratu. - Neke-naigabeak  
emon.

Ilgora. - Illargia asten doa-  
nekoa.

Iljantzi. - Ildakoai jartzen ya-  
ken soñekoa.

Ilketa. - Ilten ibiltea.

Illobi. - Ildakoak jartzeko  
obia.

Ilztatu. - Untzez josi.

Illabete. - Illa osoa.

Illargi. - Ortzean gabeko izar  
nagusia.

Ille. - Ule.

Illero. - Illean illean.

Illerri. - Gorpuak lurperatze-  
ko tokia.

Illeta. - Ildakoaren aldeko  
eleizkizuna. / Negar-jarioa:  
Or dabilz batzuk illetak  
joten euskera oraindik  
il ez dalako.

Illezkor. - Il ezin dana.

Illobi. - Il baten obia: Erde-  
raren arrobia euskeraren  
illobia.

Illun. - Eguraldi baltza, argi  
bakoa. / Itun, betoskoa.

Illunabar. - Illunkera-aldea.

Imurtxi. - Atzamurkada.

Indar. - Igitzeko gaitasuna.

Indarretsi. - Agintez indarra  
emon: Indarretsi dau epai-  
kariak gure asmoa.

Indargarri. - Indarra emote-  
koa: Osagilleak indargarri  
bat agindu daust artzeko;  
Talo - esnea avecremen  
ordez.

Indarkada. - Indarrezko ale-  
giña.

Indartu. - Indarra emon, artu.

Ingude. - Malluka lan egite-  
ko burnizko oinarria.

Inguratu. - Inguruz jarri. / In-  
gurua egin. / Lortu: Jan-  
kai onak inguratu neba  
zan gau aretarako. / Ego-  
kitu, bidera etorri: Lagun  
bat inguratu yatan ta esan  
eustan...



ILLARGI-BETEA



ILLARGI-ERDIA



ILGORA



ILBERA

ILLARGI

Inguru. - Öndoko alderdia:  
Or dabilz inguru-minguru  
ta gure euskera seguru! /  
Gitxi-gorabera: Zazpi in-  
guru erosi dauz.

Ingurumari. - Aldeko lur  
-uneak.

Inpernu. - Gaiztoak doazan  
tokia.

Intsusa. - Zugazño-mueta bat.

Intxaur. - Igal-mueta bat. /  
Intxaurrak dakazan zu-  
gatza.

Intz. - Gabeko otzaz sortzen  
dan lurruna; Intza begie-  
tan, euskal idazti baten  
izena.

Intziri. - Zizpurua.

Iñarkun. - Jarduna, lanbidea.

Iñarrosi. - Gogorki astindu.

Iñautsi. - Zugatz-adar-orriak  
murriztu.

Iñoiz. - Noz edo noz?

Iñor. - Nor edo nor?

Iñora. - Nor edo nora?

Iñotsi. - Jarion.

Iñozo. - Atzera samarra, lelo  
samarra.

Iñude. - Ume bat azteko ama  
-ordezkoa.

Iñul. - Aula.

Iñurri. - Mamutx-mueta bat.

Ipar. - Lurraren goiburua.

Ipiñi. - Nunbaiten jarri.

Ipurdi. - Soñaren atzekaldea.

Ipurtagi. - Mamutxa, illunean  
dizkizka egiten dauna.

Ira. - Bedar-mueta bat.

Irabazi. - Norberetzakotu:  
Asko irabazi dot aurtan. /  
Aurrea artu; Nork irabazi  
dau laisterketa orretan? /  
Geiago egin: Baietz iraba-  
zi nik zuri! / Irabazitakoa:  
Aurtengo irabaziak eska-  
sak izan dira.

Iragarri. - Aurreztik esan.

Irain. - Esan edo egitezko er-  
deñu-destaña.

Iraindu. - Irain egin: Orreik  
sarri iraindu nabe.

Irakasle. - Irakasten dauana.

Irakatsi. - Iñori ikasten eragin.

Irakin. - Beroarren bor-borka  
ari.

Irakurri. - Irarrita dagoana  
begiz jo ta ulertu.

Irarri. - Nunbaiten atza itxi,  
jarri.

Irato. - Batak bestea ito; Gi-  
zadi asoa uiol andi baten  
uretan irato eban (Azkue)

Irauli. - Azpikoz gora jarri.

Iraun. - Izanean jarraitu.

Irazan. - Izatera ekarri.

Irazeki. - Sutan jarri.

Iri. - Uri.

Iriki. - Zabaldu: Begi itxi  
-iriki baten egin eban.

Irispide. - Eskuratzeko bidea.

Iritsi. - Eldu.

Iritxi. - Ustea, aburua.

Iritxi. - Iritxia emon, azaldu.

Iroiren. - Orduko irurogei-  
rena.

Irola. - Komuna.

Iru. - Bi eta bat.

Irudi. - Antza emon, artu:  
Guzurra dirudi, baiña egi  
utsa da.

Irudi. - Antza, iruditakoa:  
Or Ama Birjiñaren irudi  
eder bat.

Irugarren. - Bigarrenaren on-  
doko.

Irukoitz. - Iruk egiña, iruz  
osotua.

Iruli. - Ankaz gora, edo az-  
pikoz gora jarri.

Iruñitera. - Iruntzietara: Jer-  
seia irulitera daroazu (Ur-  
duliz).

Iruntsi. - Eztarrietan barna  
sartu.

Irutan. - Iru bidar.

Irutasun. - Iru-izatea: Iruta-  
sun deuna, Aita, Semea  
ta Goteuna.

Iruzur. - Atzipea.

Irrika. - Lei bizia.

Irrintz. - Euskaldunen oi-  
berezia: Irrintzi bat en-  
tzun da mendi tontorrean.

Irripar. - Barretxua.

Irristada. - Labankada.

Irrist Egin. - Laprast egin. /  
Izotz-gaiñean edo, laban-  
ka joan.

Irrits. - Galea, joran bizia.

Irten. - Urten.

Iseka. - Par gaiztoa.

Iskanbilla. - Zalaparta andia.

Isla. - Dizdizera.

Itai. - Bedarra-ta ebagiteko  
tresna.





I T A I

Itandu. - Itaunak egin.


Itaurreko. - Soloan idi-aurre-  
tik doana.

Itto. - Uretan edo arnas-il gel-  
ditu.




## ITSASONTZI


- Itobear. - Estu-aldi larregizkoa.
- Itomen. - Estutu-bearra; Itomenen nabil.
- Itun. - Alai-gabea. / Egiunea.
- Iturbegi. - Iturria sortzen dan lekua.
- Iturburu. - Iturria sortzen dan uea.
- Iturri. - Ur jarioa.
- Itsaskor. - Errez itsatsi oi dana: Parre pozkor itsaskor.
- Itsaso. - Ur andiak.
- Itsasontzi. - Itsasoz ibilteko ontzia.
- Itsastar. - Itsas-lanaz bizi dana.
- Itsasozti. - Itsasoz dabillena.
- Itsatsi. - Ezarri.
- Itsu. - Ikusi ezin dauana.
- Itsumustuka. - Eroki. / Jo an jo emen.
- Itxaron. - Begira egon. / Ustea euki.
- Itxi. - Utzi. / Giltzaz gorde. / Bere lekura biurtu. / Bere egokeran ipiñi, barrualdea ez ikusteko moduan.
- Itxungi. - Amatau.
- Itxura. - Irudia: Itxura ona dabe arrain oneik. / Itxura egin,-rena egin: Beargin-itxurak ondo dakie egiten.
- Itxurati. - Azalkeritan dabiliena.
- Itz. - Bulko bat adierazteko abots-soiñua.
- Itzain. - Idiak daroazana.
- Itzal. - Gerizpea. / Lotsa ta dedua: Maixuari beti itzal andia agertuten eutson. / Andi be andia. Txakur itzal bat urten yakun bi-dean./Ederki: Zelan emon dozue eguna? Itzal.
- Itzaldi. - Itz egiten dan aldia.
- Itzali. - Amatau.
- Itzaltsu. - Gerispetsua.
- Itzartu. - Lotatik jagi, esnatu.
- Itzaurre.- Idazki baten aurreko itza.
- Itz etorri. - Itzetan ugaritana.
- Itzontzi. - Berbaz eta berbaz diarduana.
- Itzuli. - Biurtu.
- Ixil. - Zaratarik edo itzik gabekoa.
- Ixillean. - Ixillik egonaz./Ez-kutuan: Aitaren ixillean postura egin eban.
- Ixo. - Ixillik!
- Ixuri. - Urak-eta bota.
- Izakera. - Izateko era.
- Izaki. - Izatea dauana.



IZARTEGI



IZAR



IZAR-MORDO

Izan. - Nortasuna euki.

Izara. - Oeko estalkia, barru-aldekoa.

Izar. - Ortzeko argia.

Izen. - Norberan deitura, deikia.

Izerdi. - Bizidunai darioen ura.

Izerditan. - Izerdia botatzen.

Izker. - Itz egiteko era.

Izki. - Itzen zatia, atala: Etxe itza bi izkiduna da.



IKASTOLA  
(Laukariz-Bizkaia)

Izkillu.-Erasotzeko tresna.  
Izkirimiri.- Itz ariña, txantxe-  
tako itz-jokua.  
Izkuntza. - Izkera.  
Izlari.- Itz eta itz ari dana.  
Izoki.- Arrain mueta bat.  
Izor.- Aurdun emakumea.  
Izotz. - Ur oztua.  
Izpi. - Argitik datorren le-  
rroa.  
Iztar. - Ankaren zatia.

Iztegi. - Itzak dakazan ze-  
rrenda.  
Izu. - Ikara larria.  
Izugarri.-Izua sortzen dauana  
/Itzalezkoa.  
Izukur. - Izuz errez dana.  
Izurde.- Arrain mueta bat.  
Izurri.- Gexo kutsakorra, oso  
kaltegarria.  
Izutu. - Izua sortu, sartu,  
emon.